

UPV/EHUko Euskararen Plan Gidaria (2007/08-2011/12)-ren Iuzapen-egokitzapena (-2013)

EUSKARA ETA ELEANIZTASUNEN ERREKTOREORDETZA
VICERRECTORADO DE EUSKERA Y PLURILINGÜISMO



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

*UPV/EHUko Euskararen Plan Gidaria
(2007/08-2011/12)-ren
luzapen-egokitzapena (-2013).*

I.1 Luzapena eta egokitzea

UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak 2007ko ekainaren 21ean onartu zuen *UPV/EHUko Euskararen Plan Gidaria (2007/08-2011/12)*. Izenburuak iradokitzen du 2011-2012 ikasturtea amaitzean bukatzen dela plan horren indarraldia, eta hala dakar *Planaren indarraldia eta finantziazioa* izeneko atalean ere; baina planean ezartzen diren helburu batzuek argi eta garbi dute 2012ko abenduko data (38-43 orrialdeak), eta, hortaz, pentsatu behar da 2012ko abendura arteko indarraldia duela plan honek.

Gainera, 2009ko abenduaren 22ko Gobernu Kontseiluak *Euskararen Plan Gidaria Gradu Berrietan Ezartzeko Irizpideak* onartu zituen, eta hor zehazten da helburua dela “zehaztutako maila 2012-2013 ikasturterako lortzea”.

Bestalde, *Herri Administrazioetan Euskararen Erabilera Normalizatzeko IV. Plangintzaldia (2008-2012)* iraungitzeaz arren, oraindik ez ditugu ezagutzen 2013-2017 aldirako onartuko diren irizpideak, eta ona litzateke horiek kontuan izanik idatzi ahal izatea UPV/EHUren aldi horretako planaren atal batzuk (gutxienez AZPri dagokiona). Izan ere, horixe da, hain zuzen, orain indarrean dagoen Plan Gidariaren alde ahul bat: 2008-12 plangintzaldiko irizpideak ezagutu gabe idatzi zela, eta, ondorioz, zenbait alorretan, haren erritmotik kanpo geratu dela.

Azkenik, jakina denez, 2013ko urtarrilaren hasieran amaitzen da oraingo errektorearen agintaldia, eta egokia litzateke, beraz, errektoretza-talde berriak landu eta proposatzea hurrengo lau urteetarako lotuko duen plana. Baina, aldi berean, plan gidari berri bat egiteak hilabeteetako lana eskatuko du, eta unibertsitatearen dinamikarentzat kaltegarria litzateke plana hutsarte luzean iraungirik izatea, Gobernu Kontseiluak plan berria onartu arte.

Hori guztia kontuan izanik, Gobernu Kontseiluak, Euskara Batzordeak 2012-06-18ko bileran onartu eta proposaturiko ebaluazioa eta erabaki-proposamena aztertutik, *UPV/EHUko Euskararen Plan Gidaria (2007/08-2011/12)-ren Luzapen-egokitzapena (-2013)* onartu du, ondoko ezaugarriekin:

- *UPV/EHUko Euskararen Plan Gidaria (2007/08-2011/12)* planaren jarraipen-ebaluaziotik abiatu da.
- Lerro nagusiek balio dutela ikusi denean ebaluazioan, lerro horietako helburuak berriz ezarri dira, lerro horietan aurrerago egin ahal izateko luzapeneko urtean.
- Norabide-aldaketa handiak ebitatu dira, hori plan berri baten egitekoa bailitzateke; baina, ebaluazioa egitean ildo berriren baten beharra ikusi denean, hori ere txertatu da planaren luzapen-egokitzapenean.
- Planaren luzapen-egokitzapenak lortu behar du hutsarterik ez izatea hurrengo plana egin arte. Hortaz, 2013ko abendura arte balio beharko luke, plan berria egiteko astia izan dezan 2013an hautatuko den errektoretza-talde berriak.

I.2 Helburu nagusiak eta helburu espezifikoen ebaluazioa

UPV/EHUko Euskararen Plan Gidaria (2007/08-2011/12) planean ezarritako helburu nagusiek (29-30. orrialdeak) berdin-berdin balio dute beste urte baterako:

- Europako Unibertsitate Eremura egokitzeko trantsizio-aldian Euskal Herriko Unibertsitatean indarrean egongo den hizkuntza-politikaren ildo nagusiak finkatzea, unibertsitateko kide guztien aukera-berdintasuna bermatzeko, hautatu duten erkidegoko hizkuntza ofiziala bata zein bestea izanda, euskara unibertsitatearen kideen hizkuntza jasoaz itzea eta euskararen normalizatzarako unibertsitateak ekarpenak egitea bere beregizko esparruan, titulazioetan, irakaskuntzan eta ikerkuntzan.
- Unibertsitario euskaldunen erkidegoa sendotzea eta trinkotzea izango da Plan honen bigarren helburu nagusia. Eta horretarako neurriak jartzea euskararen egungo egoera sendotu eta hobetzeko irakats-eskaintzan, irakasle eta ikertzaileen plantillan, administrazio eta zerbitzuetako langileen plantillan, ikerketaren zabalkundean eta, baita ere, eguneroko erabileran.
- Euskal Herriko Unibertsitateak, euskararen garapen eta normalizazioari begira, erakunde aintzindaria izan behar du. UPV/EHUk arreta berezia jarriko dio euskararen corpusaren berritze eta eraberritzeari. Hartuko dituen neurrien artean izango dira terminologiagintza sustatzea eta laguntzea, sormena bultzatzea eta babestea eta hizkuntza maila jasoaz lantzea.

Plan hartan ezarritako helburu espezifikoek (30-31 orrialdeak), ordea, ebaluazio zehatzagoa eskatzen dute, eta ebaluazio horren arabera berformulatu dira, alorrez alor.

II Administrazio eta zerbitzuetako langileak

II.1 Hizkuntza-eskakizunen derrigortasun-datak.

Abian den AZPko langileen leku-aldatze lehiaketa prozesua amaitzean “(edozein kasutan ere, luzapen honen aldia amaitu baino lehen), lanpostuak banan bana berraztertuko dira, ondoko helburuarekin: lanpostu baten jabeak egiaztatua duenean lanpostuaren hizkuntza-eskakizuna edo altuagoa, derrigortasun-data gaituta ezarriko zaio lanpostuari. 2012-2013 tartean sortu litezkeen lanpostu berrien kasuan, banan bana aztertuko dira lanpostuaren eta unitatearen ezaugarriak. Neurri horiekin, eta *Herri Administrazioetan Euskararen Erabilera Normalizatzeko IV. Plangintzaldia (2008-2012)* dokumentuan bilduriko irizpideak kontuan izanik, ona litzateke 2013ko abenduan UPV/EHUko AZPko lanpostuen % 58ak derrigortasun-data gaituta izatea dagokion hizkuntza-eskakizunarentzat.

II.2 Atezain nagusiak eta menpekoak.

2012ko abenduko edo lehenagoko derrigortasun-data duen lanpostua betetzen duen menpeko edo atezain nagusi funtzionarioak, leku-aldatze lehiaketa amaitu ondoren dagokion hizkuntza-eskakizuna egiaztatu ez badu, lanpostu horretan jarraitu ahal izango du 2013ko abendura arte, edo plan berria indarrean sartu arte.

Edozein kasutan ere, Euskara eta Eleaniztasuneko Errektoreordetzak euskara ikasteko programa bereziak abiarazi eta gauzatuko ditu 2012ko irailetik 2013ko abendura bitartean, 2012ko abenduko derrigortasun-data duten lanpostuetan izanik oraindik dagokion hizkuntza-eskakizuna egiaztatu ez duten langileentzat. Kasuak banan bana aztertuko dira, baina, oro har, egunean bi orduko liberazioak eskainiko zaizkie langile hauei, nahiz eta ordu-kreditua agortua izan.

Karrerako funtzionario diren menpeko eta atezain nagusiei, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen 86/1997 dekretuan, 42. artikuluan, aurreikusi diren kasuan kasuko salbuespenak aplikatuko zaizkie (adibidez, 45 urtetik gorakoa izateari buruzkoa).

II.3 Lanpostuen zerrendan agertzen ez diren aldi baterako premiak bete behar direnean, eta jendaurreko lanpostuak badira, kasuan kasuko hizkuntza-eskakizuna eskatuko da.

Ezinbestekoa da neurri hau aplikatzen jarraitzea.

II.4 Erabilera-plan neurgarriak.

“Euskara erabiltzea unibertsitate barruko nahiz kanpoko komunikazioan” atalean ikusiko den moduan, 2011n, unibertsitate osoko euskararen erabilera neurtuko duen tresna diseinatu eta erabilera sustatuko duen plana zehazteari ekin zaio. Hortaz, AZPko langileetan soilik oinarrituriko mikroplanen bidea agortutzat ematen da, eta “Euskara erabiltzea unibertsitate

barruko nahiz kanpoko komunikazioan” atalean proposaturiko bidea bultzatzen da 2012-2013 urteetarako.

II.5 AZPkoen hizkuntza-prestakuntza.

Ona litzateke urte hauetako esperientziaren arabera egokitzea 2013ko liberazioetako eskaintza-kopuruak:

- 5 orduko 40 liberazio eskainiko dira.
- 2 orduko 180 liberazio eskainiko dira.
- 3.HE lortzeko 2 orduko 60 liberazio eskainiko dira.
- 2 orduko liberazioen bi deialdietako kopuruak elkartu ahal izango dira.

Bestalde, 5 orduko liberazioa izan ondoren hizkuntza-eskakizuna egiaztatu duten langileen lanpostuei derrigortasun-data gauditua ezartzea proposatuko da, leku-aldatze lehiaketaren prozesua amaitu ondoren, 2007ko plan gidarian zehaztu zen moduan.

2012-13an mintzapaktikako eta mintzapraktika aurreratuko ikastaroak eskaintzen segitzea proposatzen da, eta berriz ere, 2008/09an bezala, “Administrazioa euskaraz”, Euskaltzaindiaren arauak administrazioan”, “Jendearen aurrean euskara jasoan hitz egin”... edo mota horretako beste ikastaro berezitu batzuk eskaintzea.

Gainerako ikastaroetan, 2012-2013 ikasturteetan orain arteko bideari eustea proposatzen da, eta, behar izanez gero, baldintzak Euskalduntze Batzordearen aholkuen arabera doitzea.

AZPidazki plataforma, **EHUreka** hizkuntza-aholkuen zerbitzua eta **ARGItokiarekin** ere ekindako bideari eustea proposatzen da, baina erabiltzaileen neurketa-bideak zehaztea, etorkizunean adierazle gisa erabiltzeko.

II.6 Elkarlana IVAP-HAEErekin eta Hizkuntza Politikako sailburuordetzarekin.

HAEErekin eta Hizkuntz Politikako Sailburuordetzako Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaritzarekin izandako komunikazioan jarraitzea proposatzen da, eta horretarako 2007ko Plan Gidarian aurreikusitako batzorde mistoa sortzea proposatuko zaio IVAP/HAEEri. UPV/EHUK beharrak antzematen lagunduko du.

III Euskarazko irakats-eskaintza

III.1 Euskarazko irakats-eskaintza bermatzea eta gehitzea

Lizentzia eta gradua batera eskaintzen diren artean, 2011-14ko unibertsitate-planean zehazturiko helburuak mantentzea proposatzen da, jakinik gero (2014tik aurrera, lizentziak desagertzean) aukera berriak sortuko direla euskararentzat.

Urtea	% Euskarazko kredituak
2012	Helburua: 78,1
2013	Helburua: 79,5

III.2 Enborreko eta nahitaezko kreditu guztiak euskaraz eskaintzea iraugitzeaz diren titulazioetan, baldin eta eskaera nahikoa bada.

Hurrengo urteetan lizentzia guztiak desagertuko dira, baina ikasketa horietan diharduten ikasleei bermatu behar zaie euskarazko eskaintza. Horretarako, enborreko, nahitaezko eta hautazko kreditu guztiak euskaraz eskainiko dira, baldin eta eskaera nahikoa bada eta orain arte lizentzia oso-osorik euskaraz eman izan bada.

III.3 Graduak euskaraz eskaintzea, baldin eta eskaera nahikoa bada.

Edukia aldatu gabe, gure irakats-eskaintza definitzen duten hizkuntza-ereduen izenak unibertsitate-aurreko irakaskuntzan erabiltzen diren izenetara hurbiltzea proposatzen da:

2007ko izena	2012-13ko izena
A+	D+
A	D
B	C
C	B
D	A

- D+: Euskarazko eskaintza gaztelaniazkoa baino ugariagoa.
- D: Euskarazko eskaintza gaztelaniazkoaren adinakoa.
- C: Gradu osoa euskaraz ikasteko aukera (hizkuntza ez ofizialetako nahitaezkoak izan ezik)
- B: Nahitaezko guztiak euskaraz ikasteko aukera (hizkuntza ez ofizialetan irakasten direnak izan ezik)
- A: Lehenengo bi kurtsoak euskaraz ikasteko aukera.

Hortaz, oraingo izen berriekin, eta goiko definizioaren eta irizpideen arabera, ondoko hauek lirateke graduen ereduak:

IKASTEGIA	IZENA	Eredua
Farmazia Fakultatea	Elikagaien Zientzia eta Teknologiko Gradua	A
Farmazia Fakultatea	Giza Elikadurako eta Dietetikako Gradua	C
Farmazia Fakultatea	Ingurumen Zientzietako Gradua	D
Farmazia Fakultatea	Farmaziako Gradua	C
Letren Fakultatea	Ingeles Ikasketetako Gradua	-
Letren Fakultatea	Itzulpengintza eta Interpretazioko Gradua	-
Letren Fakultatea	Geografiako eta Lurralde Antolakuntzako Gradua	D
Letren Fakultatea	Filologiako Gradua	-
Letren Fakultatea	Euskal Ikasketetako Gradua	D+
Letren Fakultatea	Historiako Gradua	D
Letren Fakultatea	Artearen Historiako Gradua	C
Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien Fakultatea	Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua	D
Gasteizko Enpresa Ikasketen U.E.	Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradua	B
Gasteizko Irakasleen U.E.	Lehen Hezkuntzako Gradua	D+
Gasteizko Irakasleen U.E.	Haur Hezkuntzako Gradua	D+
Gasteizko Gizarte Langintzako U.E.	Gizarte Langintzako Gradua	D
Gasteizko Ingeniaritzako Unibertsitate Eskola	Industria Elektronikaren eta Automatikaren Ingeniaritzako Gradua	A
Gasteizko Ingeniaritzako Unibertsitate Eskola	Kudeaketaren eta Informazio Sistemen Informatikaren Ingeniaritzako Gradua	A
Gasteizko Ingeniaritzako Unibertsitate Eskola	Ingeniaritza Mekanikoko Gradua	C
Gasteizko Ingeniaritzako Unibertsitate Eskola	Geomatika eta Topografia Ingeniaritzako gradua	C
Kimika Zientzien Fakultatea	Kimikako Gradua	D
Zuzenbide Fakultatea	Zuzenbideko Gradua	C
Zuzenbide Fakultatea	Kriminologiako Gradua	B
Informatika Fakultatea	Informatikaren Ingeniaritzako Gradua	D
Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea	Gizarte Hezkuntzako Gradua	D
Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea	Pedagogiako Gradua	D
Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea	Gizarte Antropologiako Gradua	D
Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea	Filosofiako Gradua	D

Psikologia Fakultatea	Psikologiako Gradua	D
Arkitektura G.E.T.	Arkitekturaren Oinarrietako Gradua	C
Donostiako Enpresa Ikasketen U.E.	Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradua	D
Donostiako Eritzaintzako U.E.	Erizaintzako Gradua	D
Donostiako Irakasleen U.E.	Haur Hezkuntzako Gradua	D+
Donostiako Irakasleen U.E.	Lehen Hezkuntzako Gradua	D+
Donostiako U.E. Politeknikoa	Industria Elektronikaren eta Automatikaren Ingeniaritzako Gradua	D
Donostiako U.E. Politeknikoa	Ingeniaritza Elektrikoko Gradua	D
Donostiako U.E. Politeknikoa	Eraikuntza Ingeniaritzako Gradua	C
Donostiako U.E. Politeknikoa	Ingeniaritza Zibileko Gradua	C
Donostiako U.E. Politeknikoa	Ingeniaritza Mekanikoko Gradua	D
Zientzia eta Teknologia Fak.	Fisikako Gradua	C
Zientzia eta Teknologia Fak.	Matematikako Gradua	C
Zientzia eta Teknologia Fak.	Kimikako Gradua	C
Zientzia eta Teknologia Fak.	Bioteknologiako Gradua	B
Zientzia eta Teknologia Fak.	Kimika Ingeniaritzako Gradua	C
Zientzia eta Teknologia Fak.	Geologiako Gradua	C
Zientzia eta Teknologia Fak.	Biologiako Gradua	D
Zientzia eta Teknologia Fak.	Ingeniaritza Elektronikoko Gradua	B
Zientzia eta Teknologia Fak.	Biokimikako eta Biologia Molekularreko Gradua	B
Arte Ederren Fakultatea	Arteko Gradua	C
Arte Ederren Fakultatea	Kultura Ondareen Zaintza eta Zaharberritzeari buruzko Gradua	B
Arte Ederren Fakultatea	Sorkuntza eta Diseinuko Gradua	B
Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea	Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradua	C
Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea	Ekonomiako Gradua	C
Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea	Finantza eta Aseguruetako Gradua	B
Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea	Zerga Sistemako eta Administrazio Publikoko Gradua	B
Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea	Marketineko eta Merkatuen Ikerkuntzako Gradua	B
Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea	Kazetaritzako Gradua	D
Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea	Ikus-entzunezko Komunikazioko Gradua	D
Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea	Publizitateko eta Harreman Publikoetako Gradua	D

Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea	Politika Zientiako eta Kudeaketa Publikoko Gradua	D
Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea	Soziologiako Gradua	D
Medikuntza eta Odontologia Fakultatea	Odontologiako Gradua	A
Medikuntza eta Odontologia Fakultatea	Medikuntzako Gradua	D
Bilboko Ingeniaritza G.E.T.	Industria Teknologiaren Ingeniaritzako Gradua	C
Bilboko Ingeniaritza G.E.T.	Telekomunikazioaren Ingeniaritza Teknikoko Gradua	C
Bilboko Ingeniaritza G.E.T.	Industria Antolakuntzaren Ingeniaritzako Gradua	B
Bilboko Ingeniaritza G.E.T.	Ingurumen Ingeniaritzako Gradua	A
Nautika eta Itsasontzi-makineria G.E.T.	Ingeniaritza Nautiko eta Itsas Garraioko Gradua	A
Nautika eta Itsasontzi-makineria G.E.T.	Itsas Ingeniaritzako Gradua	A
Bilboko Enpresa Ikasketen U.E.	Negoioen Kudeaketako eta Merkataritzako Gradua	D
Leioako Erizaintzako U.E.	Erizaintzako Gradua	C
Bilboko Irakasleen U.E.	Lehen Hezkuntzako Gradua	D+
Bilboko Irakasleen U.E.	Gizarte Hezkuntzako Gradua	D+
Bilboko Irakasleen U.E.	Haur Hezkuntzako Gradua	D+
Lan Harremanen U.E.	Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua	C
Bilboko I.I.T.U.E.	Industria Elektronikaren eta Automatikaren Ingeniaritzako Gradua	C
Bilboko I.I.T.U.E.	Ingeniaritza Mekanikoko Gradua	D
Bilboko I.I.T.U.E.	Ingeniaritza Elektrikoko Gradua	C
Meatzeen eta Herri Lanen I. T. U.E.	Meatzaritza eta Energia Ingeniaritzako Gradua	C
Meatzeen eta Herri Lanen I. T. U.E.	Ingeniaritza Zibileko Gradua	C

2. zikloko ikasketen oinordeko diren gradu batzuetan edo gradu erabat berri batzuetan (“Elikagaien zientzia eta teknologia”, “Biokimika”, “Bioteknologia”, “Kultura Ondarearen kontserbazioa eta zaharberritzea”, “Ingurumen ingeniariatza”, “Industria Antolakuntzako ingeniariatza”, “Finantza eta Aseguruak”, “Zerga-sistema eta administrazio publikoa”, “Marketina eta Merkaturaren Ikerkuntza”...), litekeena da arazoak izatea helburua betetzeko (ikasle-kopuru txikiak dituztelako eta sailek kontratazio berririk gabe irakaskuntza-zama berriari ezin eutsi diotelako). Halere, helburura ahalik eta gehien hurbiltzeko saioak egitea proposatzen da, eta ez eredu aldetzea, ez baitugu uste orain une egokia denik orain osorik bete ezin diren helburuak apaltzeko; aitzitik, uste dugu helburu anbiziosoek euskarazko eskaintza areagotzen lagundu behar dutela 2012-13an ere.

Zerrendan agertzen ez diren bi titulazio gehitzea ezinbestekoa da, ordea:

Eibarko I.I.T.U.E.	Energia berriztagarrien ingeniartzako gradua	C
Medikuntza eta Odontologia Fakultatea	Fisioterapiako gradua	C

Gainera, ingeniartzetako ikasketen eskaintzaren berregituraketaren ondoren, ezinbestekoa da bi lekutako euskarazko eskaintza egoera berrira doitzea, euskarazko eskaintzak atzeraka egin ez dezan:

Gasteizko Ingeniaritzako Unibertsitate Eskola	Industria Kimikaren Ingeniaritzako Gradua	C
---	---	---

Bilboko I.I.T.U.E.	Kudeaketaren eta Informazio Sistemen Informatikaren Ingeniaritzako Gradua	C
--------------------	---	---

Titulazio guztien eskaintza, jakina, 2009ko abenduaren 22ko Gobernu Kontseiluak onarturiko irizpide bereberekin gauzatuko da.

Helburuen betetze-mailaren jarraipena egin ahal izateko, ikastegiak, hurrengo ikasturteko irakaskuntza-eskaintza aurkeztean, hizkuntza-ereduen betetze-mailari buruzko txostena bidaliko diote Euskara eta Eleaniztasuneko Errektoreordetzari. Graduren batean hizkuntza-eredua ehuneko ehunetan betetzen ez denean, txosten arrazoitua aurkeztu beharko du ikastegiak, gutxienez ondoko informazio honekin:

- Graduaren izena.
- Euskaraz eskaintzen ez den irakasgai(ar)en izena(k) eta kodea(k).
- Irakasgaiaren saila eta, hala dagokionean, jakintza-alorra.
- Ikastegiaren txostena, graduaren zirkunstantziak arrazoiturik. Bertan ikastegiak nahitaez zehaztuko du planaren iraupen aldiaren ahalegin egin duen dagokion eskaintza euskaraz bermatzeko (esaterako taldeen eta ordutegien antolaketan, babestutako lanpostu eskariak...).
- Sailaren txostena, irakasgai bakoitza zergatik ez den euskaraz eskaintzen arrazoiturik. Bertan zehaztuko da, nahitaez, planaren iraupen-aldian zein ahalegin egin duen sailak dagokion eskaintza euskaraz emateko, irakasle elebidunek gaztelaniaz edo ingelesez ematen duten irakaskuntza, eta aldi horretan sailak eskatu dituen lanpostuen ezaugarriak.

Bestalde, hurrengo urteetan gradu-amaierako lana euskaraz egitea bultzatuko da, eta gradua euskaraz egin duten ikasleei gradu-amaierako lana euskaraz egiteko eskubidea bermatuko zaie. Orain ez daukagu erreferentzia gisa balioko duen kopururik, baina inportantea da etorkizunean euskaraz idatzi eta defendatzen diren gradu-amaierako lanen kopurua adierazle gisa erabiltzea.

III.4 Euskararen presentzia nabaria bermatzea etorkizuneko graduondoko ikasketetan.

2011-14ko unibertsitate-planerako erabaki zen adierazle gisa definitzea masterretan euskaraz eskaintzen diren kredituen kopurua. 2013ko helburuan anbiziosoagoak izatea proposatzen da:

Urtea	ECTS kredituak euskaraz, masterretan
2012	Helburua: 525
2013	Unibertsitate Planeko helburua: 540 Helburu berria: 550

Gainera, graduondokoen eskaintza hobetzeko abiatutako neurriekin jarraitzea proposatzen da:

- Gutxieneko ikasle-kopuru txikiagoa eskatuko zaie euskarazko masterrei.
- Laguntzak eskainiko zaizkie euskaraz eskaintzen diren masterrei.
- Euskarazko unibertsitateko espezialista titulu berriak (berezko ikasketak) sortzea sustatuko da, UEUren laguntzarekin, pentsaturik etorkizuneko masterren hazia izan daitezkeela.
- Tesia euskaraz egiteko beken deialdian, puntu gehigarriak emango zaizkie euskarazko masterretako ikasleei.
- Gehienbat gaztelaniaz eskaintzen diren masterretan euskarazko irakasgaiak sartzea sustatuko da.
- Euskarazko masterren eta berezko tituluaren publizitatea ordainduko da komunikabideetan.
- Lanbiderako eskudantziak ematen dituzten master guztiei eskatuko zaie euskarazko eskaintza gaztelaniazkoa bezainbestekoa izateko.

III.5 Master-amaierako lana.

Hurrengo urteetan, master-amaierako lana euskaraz egitea bultzatu behar da eta master-amaierako lana euskaraz egin nahi duten ikasleei bermatu beharko zaie horretarako duten eskubidea.

Orain ez daukagu erreferentzia gisa balioko duen kopururik, baina inportantea da euskaraz idatzi eta defendatzen diren master-amaierako lanen kopurua adierazle gisa erabiltzeko egin behar diren urratsak ematea.

Euskara eta Eleaniztasuneko errektoreordetzaren webgunean, sare-argitalpenak atalean, "Euskarazko Master Amaierako Lanen Gordailua" sortuko da. Ikastegiei proposatuko zaie bakoitzak bere webgunean bere ikastegiko "Euskarazko Gradu Amaierako Lanen Gordailua" sortzeko.

III.6 Eskaera nahikoa duten graduondoketan bi talde osatuko dira, horietariko bat euskaraz delarik.

Horrela egiten jarraituko da. Talde horiek sortzea bultzatu eta lagunduko da, bereziki euskal gizarteari zuzenean begira sorturiko graduondokoetan.

IV Irakasle-ikertzaileak

IV.1 Irakasleen eta ikertzaileen plantillako irakasle elebidunen kopurua.

Helburu zentzuzkoa izan daiteke 2013ko urrian irakasleen %47a elebidun izatea lortzea.

Edozein kasutan ere, garrantzitsuagoa da kontratazio berriak erabakitzean, aurten bezala, Unibertsitateko Irakasleen Batzordeak bere lehenengo helburuen artean izatea “beharra duten sailetan euskarazko irakaskuntza-gaitasuna emendatzea”.

IV.2 Irakasle-ikertzaileen lanpostu elebidun eta elebakarren arteko desoreka.

Lanpostu elebakarretan eta lanpostu elebidunetan kontraturiko irakaskuntza-gaitasunari eta sailaren euskarazko eta gaztelaniazko irakaskuntza-enkarguari begiratuko zaio kontratuak erabakitzean, bi hizkuntzetan dauden ratioak parekatze aldera eta egun irakasle elebidunak duten zama handiagoa murrizteko asmoz.

IV.3 Doktore-titulua daukaten irakasle-ikertzaile elebidunen kopurua gehitzea.

Badirudi zentzuzkoa dela unibertsitate-planean ezarritako helburuak mantentzea 2012 eta 2013rako, eta orain arte erabili diren bideak erabiltzea.

Urtea	% Doktoreak irakasle elebidunen artean
2012	Helburua: 62,5
2013	Helburua: 64

IV.4 Doktore titulua eskuratzeko lizentziatarako deialdia.

Deialdiarekin orain arte bezala segitzea proposatzen da.

IV.5 Gaur egun plantillan dauden irakasleek euskara ikastea eta ondoren lanpostuen soslaia aldatzea.

Datorren ikasturterako, GAITZE programaren deialdia berrikusi eta indar berriarekin berrabiaraztea proposatzen da, deialdiaren komunikazio-kanpaina berezia eginez.

IV.6 Laguntzak irakasle-ikertzaileei euskara ikasteko.

Deialdi honekin jarraitzea proposatzen da.

V Euskarazko ikasmaterialgintza

V.1 Eskuliburuuen itzulpenak.

2013ko egitasmoak orain arteko lanaren jarraipena izan behar du: 9 testuliburu euskaratu, eta *ZIO*, *Limes* eta *Legeak* bildumetako bina liburu.

Bestalde, Euskara Batzordearen aholkuari jarraituta, protokoloko “e” atalari (Plan Gidariko 83. orrialdea) jarri behar zaio arreta berezia 2012-2013 urteetan: argitalpenen banaketaren segimenduari. Horrekin lotuta, papereko ediziotik edizio elektronikorako jauziak zein eragin izango lukeen aztertu behar da, eta, ahal dela, bide hori indartu.

V.2 Unibertsitateko irakasleek ikasmaterialak sor ditzatela bultzatzea, edo sortutakoa berrikusi eta eguneratzea

Euskal Literatura Sailak erregularitasunez argitaratu ditu urtean bi liburu, eta 2013. urtean ere horrela egitea proposatzen da.

Ikasmaterialgintza sustatzeko deialdiarekin jarraitzea proposatzen da.

2013. urtean Euskaraz Sortutako Unibertsitate Liburuak argitaratzeko bi deialdi egitea proposatzen da (bat urtarril-otsailean eta beste bat ekain-uztailean), deialdiak berak sustatzena egin dezan.

2012-13an **EHUskaratuak** korpua prestatzea, online argitaratzea eta gero eta material gehiagorekin elikatzea proposatzen da, euskarara itzulitako unibertsitateko irakaskuntza-materiala errazago kontsultatu ahal izateko. Azkenik, **GAIKA**, UPV/EHUko Euskara Zerbitzuak prestatutako gaikako glosarioak biltzen dituen glosarioa ere online argitaratzea proposatzen da. Gainera, zerbitzuaren erabiltzaileen kontaketa sistematikoa egingo da, adierazle gisa erabiltzeko.

VI Hizkuntza-prestakuntza

VI.1 Hobekuntza-ikastaroak.

2012-13an orain artekoa bezalatsuko eskaintzarekin jarraitzea proposatzen da.

VI.2 Prestakuntza tailerrak.

Terminologia Sareak Ehunduz proiektuarekin jarraitzea proposatzen da.

VI.3 “Komunikatzeko gaitasuna” gaiaren inguruko graduondokoa.

Ez dirudi 2012-13an ere graduondoko jakin bat bultzatu behar denik, alor guztietako euskarazko graduondokoak baino.

VI.4 EHULKU zerbitzu telematikoa.

EHUlku eta **EHUtsi** Zerbitzuek bere bidean segitzea proposatzen da, eta zerbitzuaren erabiltzaileen kontaketa sistematikoa egitea, adierazle gisa erabiltzeko.

VII Ikerketa eta zabalkundea

VII.1 Zientzia-dibulgazioko jardunaldiak.

2013. urtean ere, Durangoko Azokako ekitaldiez gain, gutxienez jardunaldi bat antolatu beharko litzateke ZIO bildumaren inguruan.

VII.2 Zientzia-dibulgazioko aldizkaria, batez ere unibertsitate aurreko ikasleei zuzendua.

www.irrika.net webguneari buruz 2013. urteari dagokion erabakia hartu baino lehen, beste ebaluazio bat egin beharko litzateke, 2012. urteko azken hiruhilabetekoan.

VII.3 Euskarazko tesiak sustatzea.

Euskarazko tesia egiteko ematen diren beken kopuruari dagokionez, hurrengo urteetako helburua 2011-14 urteetako planean zehaztutakoa izatea proposatzen da:

Urtea	Beka-kopurua, tesia euskaraz egiteko
2012	Helburua: 26
2013	Helburua: 28

VII.4 Euskarazko aldizkari zientifikoak eta goi-dibulgaziokoak.

Euskaraz argitaratzen diren unibertsitateko aldizkarien erredakzio-batzordeei eskatzen duten laguntza guztia eskainiko zaie, aldizkariaren kalitatea hobetzeko, eta ahalik eta datu-base eta index onenetan kolokatzeko.

Gainera, jakintza-alor guztietako gure ikasle eta irakasle euskaldunen beharrei erantzuteko, UPV/EHUtik kanpo euskaraz argitaratzen diren eta eduki zientifikoa duten aldizkariari ere (*Aldiri, Uztaro, Senez...*) laguntzea aholkatzen da, helburu berdinarekin: aldizkari horien ebaluazioak gora egitea, gure irakasle-ikertzaileek euskaraz argitaratzeko leku egokia izan dezaten.

Ezinbestekoa da hizkuntza gutxituek ikerketaren transmisioan eta zabalkundean duten tokiari buruzko gogoeta; gogoeta horretan, kontuan izan behar dira, gainera, jakintza-alorren arteko desberdintasunak. Euskara eta eleaniztasuneko errektoreordetzak gogoeta hori sustatu eta bideratuko duten ekimenak lagunduko ditu

VII.5 Euskaraz eginiko tesien ingelesezko laburpena.

Lan-ildo hau gauzatzeko, "Euskarazko tesien defentsarako behar diren itzulpen-lanak eta interpretazio-lanak egiteko diru-laguntzetarako deialdia" baliatu da. 2013. urtean deialdiarekin jarraitzea proposatzen da.

VII.6 Euskaraz egin eta defendatutako tesirik onenaren Koldo Mitxelena saria.

2013. urtean deialdiarekin jarraitzea proposatzen da.

VII.7 Unibertsitateak argitaratuko duen urtekari batek jasoko du euskaraz burutu eta zabaldu den ikerketaren berri.

2012an gune hori abiatu eta 2013an horrekin jarraitzea proposatzen da.

VIII Euskara erabiltzea unibertsitate barruko nahiz kanpoko komunikazioan

VIII.1 Benetako elebitasuna bermatzea web-orri berrian eta aplikazio informatikoetan.

Gehiago eta hobeto landu behar den punturik garrantzitsuena da IKTen gerenteordetzaren barruan garatzen diren aplikazio eta proiektu informatikoetan euskarak presentzia handiagoa izan behar duela hasiera-hasieratik, prozesu guztietan eta kalitate-kontroletan.

Gainerakoan, 2012-13an orain arteko ildo beretik jarraitu beharko litzateke.

VIII.2 “Euskal Hitzunentzako Bulegoa”.

2012-13an Euskal Hitzunentzako Bulegoaren komunikazio-kanpaina egin beharko litzateke, ezagunagoa izan dadin. Gainera, zerbitzuaren erabiltzaileen kontaketa sistematikoa egingo da, adierazle gisa erabiltzeko.

VIII.3 Hizkuntza ofizial bien erabilera bermatzea kanpoko enpresek edo erakundeek eskainitako zerbitzuetan.

Uste dugu Euskararen Plan Gidariaren luzapen-egokitze hau leku egokia dela behar hori arautzeko. Horretarako, Lehenengo Eranskinean biltzen dira “UPV/EHUn administrazio kontratuak gauzatzeko orduan bete behar diren hizkuntza baldintzak”.

Bestalde, beste administrazio batzuetako esperientziak erakutsi du ezinbestekoa dela neurri horrek betetzen direla egiaztatzea. Arautegian esaten den moduan, unitate bakoitzak izango du bere kontratuetan baldintzak zenbateraino betetzen diren ebaluatzeko ardura, baina, horrez gain, batzorde bat osatuko da Kontratazio eta Erosketen Zerbitzuko bi ordezkari eta Euskara eta Eleaniztasuneko errektoreordetzaren bi ordezkariarekin. Batzorde hau gutxienez hiru hilean behin batuko da, epe horretako kontratuen ebaluazioa egiteko hizkuntza baldintzei dagokienean, eta arautegiaren aplikaziorako beharrezko izan litezkeen irizpide eta jarraibide gehigarriak adosteko.

VIII.4 Hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta duten langileen bereizgarria.

Administrazio eta erakunde askok egin duten moduan, “Nirekin euskaraz hitz egin dezakezu, nahi baduzu” eta “Nirekin euskaraz hitz egin dezakezu, baina poliki, mesedez” dakarten mahai gaineko errotuluak zabalduko dira langileen artean, nahi duenak bere mahai gainean ipintzeko egokien datorkiona.

VIII.5 Bi hizkuntza ofizialen erabilera arautzeko jarraibideak eta beste proiektu batzuk.

2012-13an “Euskara gure begi ninitik”, “Gaztelaguna”, “Zerbitzuen karta” eta “nEHUrtu” ekimenekin jarraitzea proposatzen da, eta, esperientzien ebaluazioa egin ondoren, egoki ikusten bada, beste ikastegi eta zerbitzu batzuetara zabaltzea.

Bestalde, Unibertsitarien artean gero eta kezka handiagoa dago hizkuntzaren kalitatearen inguruan. Euskara eta eleaniztasuneko errektoreordetzak arazo horren inguruko gogoeta sustatu eta bideratuko duten ekimenak lagunduko ditu.

Azkenik, jarraibide eta irizpide zehatzak eskaintzen dira unibertsitatearen esparruan, eskoletatik kanpo, bi hizkuntza ofizialen erabilera arautzeko. Jarraibide eta irizpide hauek UPV/EHUn harreman ofizial eta protokolozkoak dituzte helburu, eta ez harreman pribatu edo ez-formalak (ikusi Bigarren Eranskina).

2. eranskin honen jatorrian, "Eusko Jaurlaritzan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak. IV. Plangintzaldia (2008-2012)" izeneko dokumentua dago. Horren ondoren, herri-administrazio gehienek egin dituzte testu horren bertsioak, bakoitzak bere administrazioarako egokituak. Euskal Autonomia Erkideko herri-administrazio gehienek 2009an onartu zituzten (Gipuzkoak Foru Aldundiak, Gasteizko Udalak, Arabako Foru Aldundiak...). Beste batzuek, oraintsuago (Portugaleteko Udalak, adibidez, 2011ko azaroan onartu zuen).

UPV/EHUn ez da halakorik egin orain arte, eta Euskara eta Eleaniztasuneko errektoreordetzak sarri erantzun behar izaten ditu beren hizkuntza-eskubideak urratutzat dituzten erabiltzaileen keak, besteak beste Eusko Jaurlaritzaren *Elebide* Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Zerbitzuak bideratuak (hain zuzen irizpide hauetan aurreikusitako egoerekin lotuak). Horren aurrean, premiazkoa ikusten genuen, beste herri-administrazioen ereduari jarraituta, UPV/EHUn ere irizpide horiek adostea.

Euskararen plan gidariaren luzapen-egokitzapena onartu ondoren, jarraibide eta irizpide hauen komunikazio-kanpaina egingo da.

IX Euskararen azpiegitura

UPV/EHUko Euskara Zerbitzuan itzultzaile-interprete bat gehiago hainbat arinen izatea premiazkoa eta garrantzitsua da. Itzultzaile-interprete hori ahalik eta arinen kontratatzeko zuzemenak egin behar dira, eta ahal denean, hainbat arinen, Lanpostuen Zerrendan sartzeko konpromisoa berresten da.

UPV/EHUko Euskara Zerbitzuaren lanetarako, eta hain zuzen dokumentu honetan jarritako helburu batzuk betetzeko, premiazkoa eta ezinbestekoa da euskarazko ikasmaterialen hizkuntza-begirale eta zuzentzailearen lanpostua. Ahal denean, hainbat arinen, Lanpostuen Zerrendan sartzeko konpromisoa berresten da.

X Beste unibertsitate-erakundeekiko elkarlana

“Oinarrizko Lankidetzaren Hitzarmena, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren, Paueko eta Aturriko Herrialdeen Unibertsitatearen, Deustuko Unibertsitatearen, Mondragon Unibertsitatearen eta Nafarroako Unibertsitatearen artekoa, euskarazko unibertsitate jarduerak bultzatzekoan” eta “Euskal Herriko Unibertsitatearen eta Udako Euskal Unibertsitatearen arteko lankidetzaren hitzarmenean” zabalduko lan-ildoak garatzea proposatzen da.

XI. Adierazleak

Planaren hurrengo ebaluazioan ondoko adierazle hauek erabiliko dira:

Administrazio eta zerbitzuetako langileak

1. Hizkuntza-eskakizunaren derrigortasun-data gainditua duten AZPko lanpostuen ehunekoa.
2. Dagokien hizkuntza-eskakizunaren euskara-ikastaroa egiten duten atezain nagusi eta menpekoen kopurua.
3. Dagokien hizkuntza-eskakizuna egiaztatzea lortzen duten atezain nagusi eta menpekoen kopurua.
4. Hizkuntza-eskakizun bakoitza egiaztatzea lortzen duten AZPko langileen kopurua.
5. AZPko langileek euskara-ikastaro mota bakoitzerako baliatzen duten liberazioen kopurua.
6. AZPko langileentzat, mintzapraktikaz gain eskainitako prestakuntza-ikastaro berezien kopurua.
7. Prestakuntza-ikastaro berezietan parte hartzen duten AZPko langileen kopurua.
8. Udako ikastaro trinkoetan, 4HEko ikastaroetan eta HAEewkin zerikusirik ez duten euskara-ikastaroetan (euskaltegietan) parte hartzen duten AZPko langileen kopurua.
9. **AZPidazki, EHUreka** eta **ARGItoki**arentzat neurketa-bideak zehaztea (bai/ez).

Euskarazko irakats-eskaintza

1. Euskaraz eskainitako kreditu-kopurua.
2. Nahitaezko irakasgaietan euskaraz eskaintzen diren kredituen ehunekoa.
3. Lehenengo kurtsoan euskaraz matrikulatzen diren ikasleen ehunekoa.
4. Gradu ikasketetan, titulazio bakoitzarentzat ezarritako ereduaren betetze maila, ehunekotan.
5. Euskaraz idatzi eta defendatzen diren gradu-amaierako lanen kopurua eta ehunekoa.
6. Masterretan euskaraz eskaintzen diren kredituen kopurua.
7. Euskaraz idatzi eta defendatzen diren master-amaierako lanen kopurua eta ehunekoa.

Irakasle-ikertzaileak

1. Irakasle elebidunen ehunekoa.
2. Doktore-titulua duten irakasle elebidunen ehunekoa.
3. Doktore-tesia egiteko liberazioa erabiltzen duten irakasle elebidunen kopurua.
4. Doktore-tesia egiteko liberazioa erabiltzen duten irakasle elebidunen ehunekoa, deialdiaz baliatu diren irakasleen artean.
5. GAITZE programan liberatzen diren irakasle-ikertzaileen kopurua.
6. GAITZE programan liberaturik izan ondoren, lanpostua elebidun bihurtu duten irakasle-ikertzaileen kopurua.
7. Euskara euskaltegietan ikasteko diru-laguntza jasotzen duten irakasleen kopurua.

Euskarazko ikasmaterialgintza

1. Jakintza-alor bakoitzean euskaraturiko testuliburuaren kopurua.
2. ZIO, Limes, Legeak eta *Euskal Literatura* bildumetan argitaraturiko liburuaren kopurua.
3. Argitalpenen banaketaren segimenduari buruzko txostena egitea (bai/ez).
4. Edizio elektronikoan argitaraturiko liburuaren kopurua.
5. Edizio elektronikoan argitaraturiko liburuaren ehunekoa.
6. Ikasmaterialgintzako sare-argitalpenen deialdiari esker argitaraturiko liburuaren kopurua.
7. Tutoretza linguistiko didaktikoarekin egindako ikasmaterialen kopurua.
8. Euskaraz Sortutako Unibertsitate Liburuak argitaratzeko deialdiari aurkezturiko liburuaren kopurua.
9. Euskaraz Sortutako Unibertsitate Liburuak argitaratzeko deialdiari esker argitaraturiko liburuaren kopurua.
10. *EHUskaratuak* eta *GAIKA* produktuen webguneetan izandako bisita-kopurua.

Hizkuntza-prestakuntza

1. Irakasle-ikertzaileei eskainitako hobekuntza-ikastaroen kopurua.
2. Irakasle-ikertzaileei eskainitako hobekuntza-ikastaroetan parte hartzen duten irakasleen kopurua.
3. *Terminologia Sareak Ehunduz* programan parte hartzen duten irakasleen kopurua.
4. *EHUku* eta *EHUtsi* zerbitzuen webguneetan izandako bisita-kopurua.

Ikerketa eta zabalkundea

1. Durangoko Azokan eta ZIO bildumaren inguruan antolaturiko ekitaldien kopurua.
2. *Irrika* webguneari buruzko txostena egitea (bai/ez).
3. Jakintza-alor bakoitzean euskaraz idatzi eta defendaturiko tesien kopurua.
4. Tesia euskaraz egiteko emandako beken kopurua.
5. Euskaraz argitaratzen diren unibertsitate-aldizkari zientifiko eta goi-dibulgaziokoaren eskariei erantzunez lagunduriko ekimenen kopurua.
6. Euskarazko tesien laburpena edo zatiren bat ingelesera itzultzeko emandako laguntzen kopurua.
7. Euskarazko dibulgazio-jarduerak jasotzen dituen webgunea abiaraztea (bai/ez).

Euskara erabiltzea unibertsitatean

1. *Euskal Hiztunentzako Bulegoaren* erabiltzaile-kopurua.
2. Kontratu-takako hizkuntza-baldintzen betetze-maila ebaluatzeko batzordeak eginiko bileren kopurua.
3. Euskararen erabilera neurtzeko *nEHUrtu* aplikazioa abian izatea (bai/ez).

4. Bi hizkuntza ofizialen erabilera arautzeko jarraibide eta irizpideen komunikazio-kanpaina egitea (bai/ez).

Euskararen azpiegitura

1. Euskara Zerbitzuan itzultzaile-interprete bat gehiago kontratatzea (bai/ez).
2. Euskara Zerbitzuko itzultzaile-interprete bat gehiago Lanpostuen Zerrendan sartzea (bai/ez).
3. Ikasmaterialen hizkuntza-begirale eta zuzentzailearen lanpostua Lanpostuen Zerrendan sartzea (bai/ez).

Beste unibertsitate-erakundeekiko elkarlana

1. Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko beste unibertsitateekin batera eginiko ekimenen kopurua.
2. UEUrekin batera eginiko ekimenen kopurua.

Lehenego Eranskina

UPV/EHUren administrazio kontratuak gauzatzeko orduan bete behar diren hizkuntza baldintzak

1.- Xedea eta aplikazio eremua

UPV/EHUko kontratazio organoek nahitaez sartuko dituzte kontratuen karatuletan eta administrazio baldintza berezien agirietan kontratuak burutzean bete behar diren hizkuntza baldintzak eta horiek ez betetzeak dakartzan ondorioak, ondorengo ataletan jasotako edukiaren arabera.

2.- Herritarren eskubideak

Kontratu bidez emandako jarduerak edo zerbitzuak UPV/EHUK berak emanak izango balira bezala jasotzeko eskubidea aitortzen zaie herritarrei.

3.- Administrazio baldintza berezien agirietako karatulan jaso beharrekoak

1. Administrazio baldintza berezien agirietako karatulan, azpiatal bat jarriko da kontratuak gure antolamendu juridikoan ezarritako hizkuntza araubide juridiko ofiziala bete behar duela adierazteko. Hona hemen horren edukia:

“Kontratu honek nahitaez bete behar du hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan eta UPV/EHUren Estatutuetako 115. eta 116. artikuluetan ezarria, eta UPV/EHUko Euskararen Plan Gidariaren Luzapena eta Egokitzea (2013) planean erregulatua.”

Hizkuntza biak erabiltzea kontratua gauzatzeko baldintzetako bat da eta, bete ezean, zein ondorio izango dituen zehaztu beharko da karatulan bertan, ondorengo 4. atalean ezarritakoari jarraikiz.

2. Zerbitzu kontratuen karatulan, kontratuaren xede den prestazioaren berezko ezaugarriak direla-eta kontratua hizkuntza ofizial bakarrean edo ez ofizial batean edo jakin batzuetan gauzatu behar bada eta administrazio baldintza berezien agirian hori adierazi behar bada, aurreko testuari hauxe erantsiko zaio:

“... ondokoa salbu, kontratuaren xede den prestazioaren berezko ezaugarriek, kontratua ezinbestean hizkuntza ofizial bakarrean, edo beste hizkuntza batzuetan, soilik gauzatzeko eskatzen badute eta kontratuaren administrazio baldintza berezien agirian horrela jasota badago.”

4. Administrazio baldintza berezien agirietan jaso beharreko klausulak

Administrazio baldintza berezien agirietan, hizkuntza baldintza hauek sartuko dira, kontratu motaren arabera:

a. Obra kontratuetan:

Klausula bat sartuko da testu honekin:

“Errotuluak, oharrak, seinaleak eta gainerako komunikazio orokorrak euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira. Baldintza hau betetzen ez bada, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Testu Bateginak, 212. artikuluan aurreikusitako zigorra jarriko zaio esleipendunari kontratuaren xede den prestazioa behar bezala ez betetzeagatik. Zigorren zenbatekoa ez betetzearen larritasunaren araberkoa izango da, proportzionaltasun printzipioari jarraikiz.”

b. Herri-lanen emakidetan:

Klausula bat sartuko da testu honekin:

“Errotuluak, oharrak, seinaleak eta gainerako komunikazio orokorrak euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira. Baldintza hau betetzen ez bada, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Testu Bateginak, 212. artikuluan aurreikusitako zigorra jarriko zaio esleipendunari kontratuaren xede den prestazioa behar bezala ez betetzeagatik. Zigorren zenbatekoa ez betetzearen larritasunaren araberkoa izango da, proportzionaltasun printzipioari jarraikiz.

Horrez gain, kontratuak herritarrei zerbitzuak ematea eskatzen duenean, kontratua gauzatzeko ardura duen enpresaren eta zerbitzuaren erabiltzailearen arteko ahozko komunikazioetan eta komunikazio idatzietan erabiltzaileak aukeratutako hizkuntza erabiliko da. Berariaz inolako aukerarik egiten ez bada, kontratua gauzatzeko ardura duen enpresak pertsona fisikoei eta juridikoei egiten dien era guztietako jakinarazpen eta komunikazioak hizkuntza ofizial bietan egingo dira, fakturak eta salerosketako bestelako agiriak barne. Hala ere, prestazioaren jasotzaileak edozein unetan erabil dezake hizkuntza aukeratzeko eskubidea eta, ondorioz, nahi duenean eskatu ahal izango du hizkuntza ofizial bakar bat erabiltzea. Baldintza honek kontratuaren funtsezko obligazio izaera dauka Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren ondorioetarako, eta hortaz, ez betetzeak kontratua bertan behera uztea ekar dezake, aipatu legearen 223.g artikuluari jarraikiz.”

c. Hornidura kontratuetan:

Klausula bat sartuko da testu honekin:

“Karatulan espresuki besterik adierazten ez bada, enpresa esleipendunak hizkuntza bietan eskainiko ditu erabilera eskuliburuak eta kontratuaren xede diren ondasun eta produktuei buruzko dokumentazioa, softwareetako testuzko eta soinuazko interfazeak barne. Baldintza hau betetzen ez bada, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Testu Bateginak, 212. artikuluan aurreikusitako zigorra jarriko zaio esleipendunari kontratuaren xede den prestazioa behar bezala ez betetzeagatik. Zigorren zenbatekoa ez betetzearen larritasunaren araberkoa izango da, proportzionaltasun printzipioari jarraikiz.”

Kontratu egileak aukera izango du aipatu erabilera eskuliburuak eta gainerako dokumentazioa hizkuntza ofizial bakar batean eskatzeko esleipendunari, batez ere, horniduraren xede den produktuaren edo ondasunaren izaera kontuan hartuta.

d. Zerbitzu kontratuetan:

Klausula bat sartuko da testu honekin:

“Karatulan espresuki besterik adierazten ez bada, kontratuaren xede diren azterlan, txosten, proiektu eta bestelako lanak hizkuntza ofizial bietan egingo dira, softwareetako testuzko eta soinuuzko interfazeak barne.

Kontratuak hirugarrenei edo, oro har, herritarrei zerbitzuak ematea edo horiekin harremanak izatea eskatzen duenean, kontratua gauzatzeko ardura duen enpresak eta erabiltzaileek edo harremanetan dauden pertsonak kontratua dela-eta burutu behar dituzten ahozko komunikazioetan eta komunikazio idatzietan hirugarrenak edo erabiltzaileak kasuan kasu aukeratutako hizkuntza erabiliko da. Berariaz inolako aukerarik egiten ez bada, kontratuaren esleipena duen enpresak pertsona fisikoei eta juridikoei egiten dien era guztietako jakinarazpen eta komunikazioak hizkuntza ofizial bietan egingo dira, fakturak eta salerosketako bestelako agiriak barne. Hala ere, herritarrak edozein unetan erabil dezake hizkuntza aukeratzeko eskubidea eta, ondorioz, nahi duenean eskatu ahal izango du hizkuntza ofizial bakar bat erabiltzea.

Klausula honetan aurreikusitako baldintzek kontratuaren funtsezko obligazio izaera daukate Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren ondorioetarako, eta hortaz, ez betetzeak kontratua bertan behera uztea ekar lezake, aipatu legearen 223.g artikuluari jarraikiz.”

Kontratu egileak aukera izango du kontratu mota honen bidez sortzen diren txostenak hizkuntza ofizial bakar batean eskatzeko esleipendunari. Halakoetan UPVEHUko Euskara Zerbitzuak ez dio inolako itzulpen zerbitzurik eskainiko kontratu egileari.

e. Zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuetan eta zerbitzuak ematea edo hirugarrenekin harremanetan jartzea eskatzen duten administrazio kontratu berezietan:

Klausula bat sartuko da testu honekin:

“Esleipendunek euskara eta gaztelania erabiliko dituzte errotuluetan, megafonia bidezko komunikazioetan, erabiltzeko jarraibideetan, etiketetan eta ekoiztutako produktuen bilgarrietan, baita eskaintzen dituzten zerbitzuak emateko sortzen diren dokumentuetan ere.

Kontratua gauzatzeko ardura duen enpresak eta erabiltzaileek edo harremanetan dauden hirugarrenek kontratua dela-eta burutu behar dituzten ahozko komunikazioetan eta komunikazio idatzietan hirugarrenak edo erabiltzaileak kasuan kasu aukeratutako hizkuntza erabiliko da. Berariaz inolako aukerarik egiten ez bada, kontratuaren esleipena duen enpresak pertsona fisikoei eta juridikoei egiten dien era guztietako jakinarazpen eta komunikazioak hizkuntza ofizial bietan egingo dira, fakturak eta salerosketako bestelako agiriak barne. Hala ere, herritarrak edozein unetan erabil dezake hizkuntza aukeratzeko eskubidea eta, ondorioz, nahi duenean eskatu ahal izango du hizkuntza ofizial bakar bat erabiltzea.

Klausula honetan aurreikusitako baldintzek kontratuaren funtsezko obligazio izaera daukate

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren ondorioetarako, eta hortaz, ez betetzeak kontratua bertan behera uztea ekar lezake, aipatu legearen 223.g artikuluari jarraikiz.”

5.- Kontratua gauzatzeko hizkuntza baldintzak zenbateraino bete diren ebaluatzea.

Unitate arduradun bakoitzak neurriak hartuko ditu ezarritako hizkuntza baldintzak zenbateraino bete diren ebaluatzeko, Euskara eta Eleaniztasuneko errektoreordetzaren laguntzaz eta aholkularitzaz.

Kontratazioa egin eta kudeatzeko eskumena duten organoek bidezkoak diren neurriak hartuko dituzte kontratuen exekuzioa dela eta, erabilitako hizkuntzen zuzentasuna zaintzeko, Euskara Zerbitzuaren laguntzaz eta aholkularitzaz.

Bigarren Eranskina

UPV/EHUn esparruan, eskoletatik kanpo,

bi hizkuntza ofizialen erabilera arautzen duten jarraibideak eta irizpideak

Jarraibide eta irizpide hauek UPV/EHUn harreman ofizial eta protokolozkoak dituzte helburu, eta ez harreman pribatu edo ez-formalak.

1. ZERBITZU-HIZKUNTZA:

Unibertsitateko hizkuntza ofizialak euskara eta gaztelania dira. Beraz, erabiltzaileek hautatutako hizkuntzan eman beharko du zerbitzua unibertsitateak.

1.1 Ahozkoa:

Erabiltzailea (ikaslea, irakaslea, bestelakoa) UPV/EHUko langilearekin harremanetan jartzen denean (aurrez aurre nahiz telefonoz), edo AZPko langilea erabiltzaileari zuzentzen zaionean

Irizpideak:

Hasierako agurra beti euskaraz izango da, eta **elkarrizketa** erabiltzaileak aukeratzen duen hizkuntzan garatuko da. Erabiltzailearekiko harremanak bideratzeko orduan, sarri, ez dugu jakingo hartzailea euskalduna den ala ez. Hori dela eta, euskara lehenetsiko dugu hasiera edo agurretan, hartu-emana ahal den kasuetan, behintzat, euskaraz izan dadin.

Euskara ondo ez dakien langileari euskaraz egiten badio erabiltzaileak eta langileak ikusten badu ez dela gauza zerbitzua euskaraz behar bezala emateko, bere inguruko lankide euskaldunen bati eskatuko dio laguntza. Edozein kasutan, langileek ezingo diote eskatu erabiltzaileari hizkuntza batean edo bestean aritzeko.

Hartzaile jakinik gabeko mezuak (erantzungailu automatikoak, bozgorailuak...): lehenengo euskaraz eta gero gaztelaniaz esango dira.

1.2 Idatzizkoa:

a.) Idatzizko harremana UPV/EHUK hasten duenean (inprimakiak, komunikazioak, asebetetze-inkestak, tituluak, zigiluak, etab.)

Irizpideak:

UPV/EHUK bere zerbitzuak emateko erabiltzen dituen **inprimaki guztiak euskaraz eta gaztelaniaz** idatzita egongo dira, bi hizkuntzetako edozeinetan betetzeko moduan.

Era berean, UPV/EHUko **zigilu guztiak** euskaraz eta gaztelaniaz idatzita egongo dira, bati lehentasuna ematekotan euskarari lehentasuna emanez.

Data hizkuntza bakarrean ipini behar denean, idazteko honako formatu hau erabiliko da: UUUU/HH/EE, hau da lau digitu urtearentzat, bi digitu hilabetearentzat eta bi digitu egunarentzat, aipatutako hurrenkera horretan.

UPV/EHUK sortzen dituen **arautegi eta erabaki guztiak** euskaraz eta gaztelaniaz izango dira.

UPV/EHUK idatzizko harremana **euskaraz** bideratuko du erabiltzaileak aldeztatik euskara hautatu badu (ohiko harremana euskara hutsezkoa bada, hautua egin duela ulertuko da).

UPV/EHUK idatzizko harremana **euskaraz eta gaztelaniaz** bideratuko du gainerako kasuetan, baina euskara hautatzeko aukera emango dio erabiltzaileari ohar baten bidez.

- b.)** UPV/EHUK komunikazio bati erantzun behar dionean (gutunak, komunikazioak, jakinarazpenak...)

Irizpideak:

UPV/EHUK **euskaraz** erantzungo dio euskaraz jasotako idatziari.

UPV/EHUK **gaztelaniaz** erantzungo dio gaztelaniaz jasotako idatziari; eta zerbitzuak gaitasuna badu komunikazioak euskaraz egiteko, euskara hautatzeko aukera emango dio eskatzaileari ohar baten bidez

Euskaraz eta gaztelaniaz jasotako idatziei honela erantzungo diegu:

- mezua edo gutuna bada, euskaraz eta gaztelaniaz.
- eredu estandarizatuak, euskaraz eta gaztelaniaz.
- txostenak, hizkuntza batean edo bestean, erabiltzaileari galdetu ostean.

2. ERROTULAZIOA eta OHAR LABURRAK

2.1 Arlo honetan ondokoak aintzat hartuko ditugu:

- UPV/EHUren logoa duen edozein elementu
- Ikastegi, campus, sailen izenak
- Bulegoetako errotulu finakoak: gelak, solairuak, liburutegia...
- Segurtasuneko errotuluak
- Ingurumenarekin zerikusia duten errotuluak

- Gelak identifikatzeko kodeak
- Ordutegia, funtzionamenduari buruzko oharrak...
- Era horretako beste edozein euskarri

Irizpideak

Euskaraz bakarrik idatziko dira errotuluetako hitzek euskaraz eta gaztelaniaz antzeko grafia dutenean.

Mezua piktograma batez adierazten denean, eta horrela ulergarria denean, ez dugu zehaztuko ez euskaraz, ez gaztelaniaz.

Oro har, euskaraz eta gaztelaniaz idatziko dira

Gelak, laborategiak, sailak, bulegoak... identifikatzeko errotuluetan, kodeetan... **euskaratik abiatuko gara.**

- 2.2** Ohar-taulak: UPV/EHUko ohar-tauletan erakusten diren dokumentuak, oro har ele bietan agertuko dira, eta hartzaileak euskaldunak direla argi dagoenean euskara hutsez argitaratu ahal izango dira.

3. LAN-HIZKUNTZA:

Langileen arteko (ikastegi edo zerbitzu barruan), ikastegien, sailen edo zerbitzuen arteko harremana hartuko dugu aintzat alor honetan. Arlo honetan, aintzat hartu beharko dugu langile guztiek ez dutela dagokien hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta. Horretaz gain, zerbitzuen edo ikastegien arteko harremanak bideratzeko orduan, sarri, ez dugu jakingo hartzailea euskalduna den ala ez. Hori dela eta, euskara lehenetsiko dugu hasiera edo agurretan, hartu-emanak ahal den kasuetan, behintzat, euskaraz izan dadin (bai idatzizkoa, bai ahozkoa).

Bestalde, laneko batzar eta batzordeetan urratsak eman beharko ditugu, langile bakoitzak aukeratutako hizkuntza erabili ahal izateko.

- 3.1 Ahozkoa:** aurrez aurre zein telefono bidezko hartu-emanak hartzen ditugu aintzat.

Irizpideak

- a.)** Ikastegi, sail edo zerbitzu barruko harremanetan, eta zerbitzu, sail edo ikastegien arteko ahozko komunikazioetan, hasierako agurra euskaraz izango da. Elkarriketa, solaskidearen gaitasunaren arabera, euskaraz izango da.
- b.)** Lan-batzarrak eta batzordeak.

Zerbitzu orokorretako batzordeetan aldi bereko itzulpen zerbitzua izango dute.

- 3.2 Idatzizkoa:** bi eratako testuak ezberdindu ditzakegu: batetik, eredu estandarizatuak; bestetik, sortu beharreko dokumentuak.

a.) Eredu estandarizatuak:

Irizpideak

Inprimakiak, titulu ofizialak, txantiloiak eta ereduak euskaraz eta gaztelaniaz izango dira.

b.) Zigiluak:

Irizpideak

Zigilu guztiak euskaraz eta gaztelaniaz idatzita egongo dira, bati lehentasuna ematekotan euskarari lehentasuna emanaz, eta data(hizkuntza bakarrean eman behar denean) idazteko honako formatu hau erabiliko da: UUUU/HH/EE, hau da lau digitu urtearentzat, bi digitu hilabetearentzat eta bi digitu egunarentzat, aipatutako hurrenkera horretan.

c.) Komunikazioak, aktak, bilera-deiak, aurkezpenak...:

Irizpideak

Batzarraren hizkuntzaren arabera, hizkuntza bakarra (euskara edo gaztelania) edo biak erabiliko ditugu. Hedapenaren arabera, hau da, hartzaile kopuru handia badu, edo ohar tauletan jartzeko bada, edo webgunean argitaratzeko, esaterako, euskaraz eta gaztelaniaz izango dira. Bestalde, organo kolegiatuen bileren aktetan euskaraz eta gaztelaniaz agertuko dira ezinbestean azaldutakoaren laburpena eta adostutakoen atala; gainerakoak gaia aurkeztutako hizkuntzan jasoko dira.

d.) Sortu beharreko komunikazio edo testuen kasuan, harremana norberak hasten duenean (jakinarazpenak, eskaerak, komunikazioak...):

Irizpideak

Euskaraz eta gaztelaniaz izango dira.

Lankideak aldez aurretik euskara hautatu badu, euskara hutsean.

Euskaraz eta gaztelaniaz, gainerakoetan, baina euskara hautatzeko aukera emango diogu hartzaileari ohar baten bidez.

e.) Beste lankide batek egindako eskabide, komunikazio edo dokumentu bati erantzuten zaionean, hau da, harremana besteak hasi duenean:

Irizpideak

Euskaraz erantzungo diogu, euskaraz jasotako idazkiari; eta gaztelaniaz, horrela jaso badugu.

Ele bietara jaso badugu edo langile multzo bati bidaltzen diogunean, euskaraz eta gaztelaniaz izango da erantzuna.

4. INTERNET

4.1. UPV/EHuren webgunea, ikastegiaren webguneak, zerbitzuen webguneak

Irizpideak

Edukiak **euskaraz eta gaztelaniaz kontsultatzeko** moduan egongo dira. Sarrerako orria neutroa izango da eta edozein orritan gaztelaniazko orri paralelora joateko aukera emango du (gaur egun erabiltzen den webgunean ezinezkoa da, baina bertsio berria lantzean kontuan hartuko da irizpidea). Horretaz gain, azken aldian egindako hizkuntza-hautua mantenduko du hurrengoetarako.

Izapideak egiteko aukera ematen dugunean, izapide horiek **euskaraz eta gaztelaniaz** egin ahal izango dira.

UPV/EHUko ikastegiak edo zerbitzuek sortzen dituzten webguneak irizpide berberak beteko dituzte.

UPV/EHUtik kanpoko edukiak gure web orrian argitaratzen ditugunean, **bi hizkuntza ofizialak** modu orekatuan erabiliko ditugu, baldin eta horrela badago (euskarazkoa txertatuko da gure webgunearen euskarazko bertsioan eta gaztelaniazkoa txertatuko da gurearen gaztelaniazko bertsioan).

4.2. Sare sozialak (facebook, twitter, linkedin, youtube...)

Irizpideak

Kasu bakoitzean (facebook, twitter, linkedin...) hizkuntza bereizi gabe, kontu elebidun bakarra zabalduko da, hau da, ez da hizkuntza bakoitzeko kontu bat irekiko.

Edukiak euskaraz eta gaztelaniaz argitaratuko dira; lehenengo euskaraz bistaratuko dira, eta, ondoren, gaztelaniaz.

Haiek guregana zuzentzeko hautatzen duten hizkuntzan erantzungo zaie erabiltzaileei.

5. INTRANETA ETA APLIKAZIO INFORMATIKOAK

5.1. INTRANETA.- UPV/EHUK bere osotasunean, ikastegiak edo zerbitzuek barne-harremanetarako erabiltzen duten sare informatikoa.

Irizpideak

Edukiak **euskaraz eta gaztelaniaz kontsultatzeko** moduan egongo dira.

Bigarren eranskina. Bi hizkuntza ofizialen erabilera arautzen duten jarraibide-irizpideak

Sarrerako orria neutroa izango da eta edozein orritan gaztelaniazko orri paralelora joateko aukera emango du (gaur egun erabiltzen den webgunean ezinezkoa da, baina bertsio berria lantzean kontuan hartuko da irizpidea). Horretaz gain, azken aldian egindako hizkuntza-hautua mantenduko du hurrengoetarako.

Izapideak egiteko aukera ematen dugunean, izapide horiek **euskaraz eta gaztelaniaz** egin ahal izango dira.

- 5.2. APLIKAZIO INFORMATIKOAK.-** UPV/EHUko zerbitzuetan erabiltzen diren programa eta tresna informatiko orokorrak (sistema eragileak, ofimatika...) edo berariaz sortutakoak (kudeaketa programak, etab.)

Irizpideak

Ordenagailuetan ofimatikako programak instalatzeko erabiltzen diren paketeak euskaraz eta gaztelaniaz egongo dira prestatuta. Erabiltzaileari galdetu egingo zaio zein bertsio erabili nahi duen eta erabiltzaileak egindako aukeraketaren arabera bertsioa instalatuko da.

UPV/EHUko zerbitzuetan erabiltzeko berariaz sortzen diren programa edo tresna informatikoak bi hizkuntza ofizialetan berdin lan egin ahal izateko prestatu egongo dira.

Euskarazko bertsioa txukuna eta erabilgarria izango da, ez gaztelaniazkoaren egokitzapen hutsa. Bereziki saihestu beharko da programa osorik gaztelaniaz egin eta guztiz bukatu ostean ekitea euskarazko bertsioari, jokabide horrek sarritan zailtasun gaindiezinak ezartzen baitizkio euskarazko moldaera txukun eta erabilgarriari.

Hizkuntza irizpide hauek indarrean jarri aurretik erabiltzen diren programa informatikoak euskaraz lan egiteko prestatu ez daudenean, plangintza bat egingo da tresna informatiko horiek egokitzeko eta prestatzeko.

6. KONTRATAZIO ADMINISTRATIBOAK

- 6.1. UPV/EHUK kontratu bidez emandako zerbitzuak edo jarduerak erabiltzaileei zuzendutakoak direnean**

Irizpideak

“UPV/EHUren administrazio kontratuak gauzatzeko orduan bete behar diren hizkuntza baldintzak” atalean bildurikoa beteko da.

UPV/EHUK kontratu bidez emandako jarduera eta zerbitzuak UPV/EHUK berak emanak izango balira bezala eskainiko ditu. Beraz, kontratatutako enpresak

UPV/EHUK bere buruari ezarritako hizkuntzen erabilerarako jarraibideak beteko ditu.

Kontratuen baldintza administratibo berezien eta ezaugarri teknikoaren agiriak bi hizkuntza ofizialetan argitaratuko dira. Baldintza-plegu guztietan eskaini beharreko zerbitzuak bete beharko dituen hizkuntza-baldintzak jasoko dira.

Kontratuen bidez eman beharreko zerbitzuen prestazioak erabiltzaileekiko harreman zuzenak dakartzanean baldintza hauek beteko dira:

- a) Erabiltzaileek bi hizkuntza ofizialetan hartuak izateko eskubidea errespetatuz eman beharko du prestazioa kontratistak
- b) Erabiltzaileentzako inprimakiak, oharra eta jakinarazpenak euskaraz eta gaztelaniaz eman beharko ditu enpresa esleipendunak, erabiltzaileak berariaz inolako aukeraketarik egiten ez badu

Gainera, irizpide zehatzak sartuko dira zerbitzuaren arabera: euskaraz harrera egiteko protokoloa, txanda bakoitzean egon beharreko gutxieneko euskaldun-kopurua, subrogazio kasuetarako euskalduntze-planak...

7. EKITALDIAK

7.1. UPV/EHUK edo ikastegi edo zerbitzuren batek antolatutako ekitaldiak: Ateak zabaltzeko egunak, Orientazio-topaketak, Zientziaren Astea, Unibertsitate orientatorako azokak, Udako ikastaroak, ikasle-gaientzako jarduerak praktikoak, Informazio eta orientazio jardunaldiak, klastroak...

Irizpideak

Ekitaldi publikoen antolamendu fasean, hizkuntzak nola erabiliko diren zehaztu beharko da.

Idatzizko dokumentazioa, gutxienez, euskaraz izango da (hiru orrikoak, banatutako dokumentazioa, seinaleak...).

Ahozko komunikazioari dagokionez, euskara gaitasun egokiko pertsonak aukeratuko ditugu eta, beti ere, euskarak gutxieneko presentzia izango du (hasierako eta amaierako agurrak, gutxienez, euskaraz izango dira).

Hala ere, esataria euskalduna izan ez arren, euskararen presentzia bermatu egin beharko da. Hona hemen bide batzuk:

- Hizkuntza bakoitzerako saio paraleloak antolatzea (unibertsitate sarbiderako azokan, esaterako).
- Aldibereko itzulpena erabiltzea.

- Idatzizko euskarrietan informazio guztia izanez gero, hizkuntza biak txandakatzea informazioa errepikatu gabe.
- Ahozko informazioa hizkuntza batean eman, eta erakusten den aurkezpena (pantailan, esaterako) bestean eskaintzea. Bideoa bada, beti azpigituluekin jokatzea.
- Euskara hutsean egin nahi izanez gero saioa, eta parte-hartzaile bakarren bat ez bada euskalduna, aldibereko interpretazio xuxurlatua erabil daiteke. Aldibereko interpretazio xuxurlatua (fr. *chuchotage*, esp. *interpretación susurrada*, ing. *whisperink interpreting*), jakina, interpretazio mota ezaguna da, erakunde eta administrazio askotan erabiltzen dena (Europako Batzordean, adibidez), baldintza jakin batzuetan.
- Galdera egiteko erabilitako hizkuntza berean izango da erantzuna (esatariak gaitasuna badu, behintzat).
- Gogoan izango dugu litekeena dela euskaraz hitz egiteko gai ez denak ondo ulertzeko gaitasuna izatea.

8. PUBLIZITATEA, ARGITALPENAK, KANPAINAK ETA IRAGARKIAK

8.1. UPV/EHUK egiten duen publizitatea, iragarpenak eta kanpainak

Irizpideak

UPV/EHUren iragarpen ofizialak eta gainerako publizitate ekintzak bi hizkuntza ofizialetan egingo dira.

UPV/EHUK sortzen dituen kanpaina, publizitate mezu eta gisakoak euskaraz sortuko dira, gaztelaniaz sortutakoen itzulpen soilak izan ez daitezten.

Iragarpenok euskara hutsez argitaratuko dira euskarazko hedabideetan.

8.2. Argitalpenak

Irizpideak

Gida, aldizkari, katalogo eta zabalkunderako argitalpen guztietan bi hizkuntza ofizialak erabiliko dira modu orekatuan eta UPV/EHUko Erakunde Irudiaren Eskuliburuan jasotako irizpideak beteko dira.

9. ERREGISTROA

9.1 UPV/EHUn dokumentuei sarrera edo irteera erregistratzeko prozedura

Irizpideak

UPV/EHUko bulegoetako erregistro administratiboetan, programa informatikoak euskaraz nahiz gaztelaniaz erregistratzeko aukera emango du. Hizkuntza

Bigarren eranskina. Bi hizkuntza ofizialen erabilera arautzen duten jarraibide-irizpideak

kontrolatuak bermatuko du bilaketak berdin balioko duela euskaraz nahiz gaztelaniaz.

10. BESTE ADMINISTRAZIO ETA ERAKUNDEEKIN HARREMANAK

10.1. UPV/EHUK beste edozein erakunderekin dituen ahozko harremanak.

Irizpideak

Hasierako agurra beti euskaraz izango da, eta **elkarrizketa** erabiltzaileak aukeratzen duen hizkuntzan garatuko da. Erabiltzailearekiko harremanak bideratzeko orduan, sarri, ez dugu jakingo hartzailea euskalduna den ala ez. Hori dela eta, euskara lehenetsiko dugu hasiera edo agurretan, hartu-emanan ahal den kasuetan, behintzat, euskaraz izan dadin.

10.2. UPV/EHUK beste edozein erakunderekin idatzizko harremana hasten duenean.

Irizpideak

UPV/EHUK idatzizko harremana **euskaraz** bideratuko du erabiltzaileak aldeztatik euskara hautatu badu (ohiko harremana euskara hutsezkoa bada, hautua egin duela ulertuko da).

UPV/EHUK idatzizko harremana **euskaraz eta gaztelaniaz** bideratuko du gainerako kasuetan, baina euskara hautatzeko aukera emango dio erabiltzaileari ohar baten bidez.

10.3 Idatzizko harremana besteak hasten duenean

Irizpideak

UPV/EHUK **euskaraz** erantzungo dio euskaraz jasotako idatziari.

UPV/EHUK **gaztelaniaz** erantzungo dio gaztelaniaz jasotako idatziari; eta zerbitzuak gaitasuna badu komunikazioak euskaraz egiteko, euskara hautatzeko aukera emango dio eskatzaileari ohar baten bidez

Euskaraz eta gaztelaniaz jasotako idatziei honela erantzungo diegu:

- mezua edo gutuna bada, euskaraz eta gaztelaniaz.
- eredu estandarizatuak, euskaraz eta gaztelaniaz.
- txostenak, hizkuntza batean edo bestean, erabiltzaileari galdetu ostean.

11. ITZULPENA eta SORTZE-LANA

Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (2013-2023) dokumentu-proposamenak dioen moduan, “itzulpenei esker, eta gaztelania ia beti sorburu-hizkuntza izanda, bermatzen dugu nahi baino gehiagotan hizkuntza ofizial bien presentzia. Hemen ere, gainerako hizkuntza irizpideekin bezala, erakundean erakundeko eta sailean saileko erabilera planek eta hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideek argi eta garbi finkatuko dute, tokian tokiko egoera soziolinguistikoaren arabera, zer itzuli eta zer ez itzuli, zer sortu hizkuntza batean, zer bestean eta zer bietan, itzultzaileez ez ezik lanpostuko hizkuntza eskakizuna lortua duten langileez ere baliaturik elebitasuna bermatzeko. Itzulpenaren pisua, oro har, arindu beharko da sortze lanaren mesedetan”.

Lerro horietan iradokitako bidearen ildoari jarraitzeko moduak bilatuko dira, beste administrazioekin batera.

12. DOKUMENTUEN EDO TESTUEN DISEINUA

- 12.1** Dokumentuak edo testuak diseinatzeko UPV/EHUko **Erakunde Irudiaren Eskuliburuan** jasotako jarraibideak hartuko ditugu aintzat, oro har.

Irizpideak

1. Euskarazko eta erdarazko **testuak orriaren alde batean** agertzen badira: Idazki-motak kontuan izanik, hiru aukera aipatuko ditugu:
 - a. Inprimaketako datuak: hizkuntza biak bata bestearen ondoan. Lehenengo euskaraz, eta ondoren beste hizkuntza.
 - b. Testu labur-laburrak (bandoa, iragarkia, oharra): orrialdearen goiko aldean euskarazko testua, eta beheko aldean bestea.
 - c. Idazkia orriaren alde batean sartzeko modukoa bada (ofizioa, gutuna, bilera-deia...), eta zutabeak erabiltzen baditugu: ezkerrean euskarazkoa eta eskuinean bestea.
2. Euskarazko eta erdarazko testuak orri bat baino gehiago hartzen badute, bi aukera ditugu, idazkiaren luzera aintzat hartuta:
 - a. Testuak orri gutxi hartzen baditu (dekretua, erabakia...), bi zutabeak erabiliko ditugu.
 - b. Testua luzeagoa bada (txostenak, aktak, liburuak...), egokiagoa da orrialde ezberdinak erabiltzea (ezkerreko orriari gaztelania, eta eskuinean euskara; edo liburuaren aurrealdean euskara, eta atzealdean, ipurdiz gora, gaztelania).

Oro har, euskara lehenetsi egingo dugu, bai ahozkoan, bai idatzizkoan; idatzizkoari dagokionez, goian euskara agertuko da, eta letra nabarmenagoa izango du.

Bigarren eranskina. Bi hizkuntza ofizialen erabilera arautzen duten jarraibide-irizpideak

5. OHAR GEHIGARRIA

Dokumentu honetan eguneroko jardunean gerta daitezkeen egoeretan bete beharreko jarraibideak jasotzen saiatu gara. Hala ere, kasuistika guztia jasotzea ezinezkoa denez honako hau izango da jarraibide orokorra: **UPV/EHUK sortutako edozein dokumentuk, komunikaziok edo elementuk, hizkuntza-edukia badu, euskararen presentzia bermatu beharko du, eta hizkuntza bat baino gehiago baditu euskarazkoari lehentasuna emango zaio.** Zalantzako kasuetan Euskara eta Eleaniztasunaren Erretoreordetzak izango du erabakitze ahalmena.

Aurkibidea

I.1. Luzapena eta egokitzea	2
I.2. Helburu nagusiak eta helburu espezifikoak	3
II. Administrazio eta zerbitzuetako langileak	4
III. Euskarazko irakats-eskaintza	6
IV. Irakasle-ikertzaileak	12
V. Euskarazko ikasmaterialgintza	13
VI. Hizkuntza-prestakuntza	14
VII. Ikerketa eta zabalkundea	15
VIII. Euskara erabiltzea unibertsitate barruko nahiz kanpoko komunikazioan	17
IX. Euskararen azpiegitura	18
X. Beste unibertsitate-erakundeekiko elkarlana	19
XI. Adierazleak	20
Lehenego Eranskina. UPV/EHUren administrazio kontratuak gauzatzeko orduan bete behar diren hizkuntza baldintzak	23
Bigarren Eranskina. UPV/EHUren esparruan, eskoletatik kanpo, bi hizkuntza ofizialen erabilera arautzen duten jarraibideak eta irizpideak	27
Aurkibidea	38